



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera- zenbakia: 2025ICGO0017

Eguna: 2025-10-28

Ordua: 19:35 -19:54

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ- PNV
- Patxi Suárez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2025eko urriaren 16ko akta onartzea.
- 2.- Astigarragako Udalaren eta Beterri Buruntza Mankomunitate arteko lankidetzaren hitzarmena, 2025-2026ko Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako laguntzaren deialdiaren babesean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko.
- 3.- Grabelin kalea, Ergobia plazatxoa eta Zubigain pasealekuko eremua urbanizatzeko proiektua.
- 4.- Astigarragako herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko udal dirulaguntzen ebazpena.
- 5.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan- eginak eta erabakiak

1.- 2025eko urriaren 16ko akta onartzea.

Maria eta Patxi zinegotziak abstenitu egin dira aurreko bileran egon ez zirelako, gainakoek, berriz, alde bozkatu dutenez, akta onartu egin da.

2.- Astigarragako Udalaren eta Beterri Buruntza Mankomunitate arteko lankidetzaren hitzarmena, 2025-2026ko Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako laguntzaren deialdiaren babesean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko.

Alkateak adierazi du urtero sinatzen den hitzarmena dela, langabetuak kontratatuzeko Lanbiden izapidetzen

den dirulaguntza bideratzeko, eta horren nondik norakoak azaldu ondoren, Ongizate batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena- *Astigarragako Udalaren eta Beterri Buruntza Mankomunitate arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2025-2026ko enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntzaren deialdiaren babesean Lanbide-Euskal enplegu zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko onartzea.*

Bigarrena- *Alkatea baimentzea lankidetzeta-hitzarmena eta hitzarmena gauzatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.*

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3.- Grabelin kalea, Ergobia plazatxoa eta Zubigain pasealekuko eremua urbanizatzeko proiektua.

Alkateak obraren xehetasunak azaldu ditu, eta adierazi du udal-aurrekontuan obra gauzatzeko zenbaterkorik ez eduki arren, ónartzeko aurkezten dela, Uraren Euskal Agentziak zubia eraberritzeko obra egiten duenerako guztia prest izateko eta, horrela, obra hau ere aldi berean egin ahal izateko. Jarraian, Lurralde Batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Bakarra- *Onartzea Grabelin kalea, Ergobia plazatxoa eta Zubigain pasealekuko eremua urbanizatzeko proiektua, i-ingenia ingenieria y arquitectura, S.A. elkarteak 2025eko ekainean idatzia.*

Maria zinegotziak hitza hartu eta adierazi du proiektua aztertu dutela eta ongi ikusten dutela, baina auzotarrekin elkartu direla, eta horiek ez daudela ados eta adierazi dutela ez dela beraiekin konpartitu, beraz, proposatu du onarpena mahai gainean uztea auzotarrekin hitz egin arte, adieraziz bestela kontra bozkatuko dutela.

Alkateak azaldu du aurerago aldaketak egin daitezkeela, eta zubiaren obrak egiteko proiektuak hau aldatzea ere eska dezakeela, baina proiektua onartuta izatearen arrazoiak azaldu ditu (proiektua idatzia ez edukitzea arazoak ekar ditzake beste obrarekin batera egiteko, litekeela delako denborarik ez izatea hori idatzi eta onartzeko). Bestalde, adierazi du bizilagunekin bilera bat egin zutela, eta Ergobiako beste urbanizazio-proiektuarekin (Kioskoa eraikitzea) bizilagunek ere ezadostasuna adierazi zutela, baina bakoitza zuzenean eragiten zien gai desberdin batengatik.

Maria zinegotziak adierazi du herritar bakoitzak zerbait desberdina eskatu edo aipatu dietela. Ainara zinegotziak eta alkateak adierazi dute zaila dela horrelako obrak denon gustukoak izatea; eta alkateak gogorarazi du beste proiektu batzuei ere kritikak egin zizkietela (Emakumeon plaza, Donostia ibilbidea edo Arrobitxulo urbanizatzea), baina orain jendea oso pozik dagoela, eta adierazi du berriro bizilagunekin elkartuko direla.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 4 botoekin (Astigarragako EHBildu taldeko kideena eta Udal talde euskal sozialistarena) eta kontrako boto 1ekin (Astigarragako EAJ-PNV taldeko kidearena).

4.- Astigarragako herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko udal dirulaguntzen ebazpena.

Alkateak azaldu du aurten izan dela dirulaguntza lerroa onartu den lehen aldia, 6-7 bat laguntza ukatu behar izan direla errenta-baldintza betetzen ez dutelako, ordaintzen duten alogera handiagoa delako, eta hurrengo deialdietarako hori aztertu eta aldatuko dela. Jarraian, Lurraldea Batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehena.- Astigarragako herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko 2024 urteko dirulaguntzak onartzea, espediente hauentzat:

- 2025HDIR0011 espedienteko titularrari 3.600,00€ko dirulaguntza.
- 2025HDIR0014 espedienteko titularrari 3.600,00€ko dirulaguntza.

Bigarrena.- Astigarragako Udaleko Idazkaritza sailari hartutako akordioaren berri jakinaraztea.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu dira.

5.- Informazio, galdera eta eskariak.

Alkateak hurrengo egunerako ez ohiko bilera deitu izanaren arrazoiak eman ditu. Adierazi du hilak 27an bukatzen zela bi obra-kontratuetan eskaintzak aurkezteko epea, batean ez dela eskaintza bakarra ere jaso eta Umako auzokagunera bi eskaintza jaso direla (bata lote bakoitzeko). Baina horiek epez kanpo aurkeztu direnez, lizitazio hori ere hutsik jo behar dela, eta asmoa dela berri bat martxan jartzea, obra-proiektu eta baldintza administratibo berdinekin.

Bestetik, eta urte bukaera arteko udal osoko bilkurei dagokionez, adierazi du azarokoa hilak 25ean denez, 18:00etan egitea aurreikusi dela, Emakumeon etxeak Foru plazan ekitaldia antolatu duelako 19:00etan Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunagatik. Eta abendukoa, berriz, hilak 23an izango dela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2025eko urriaren 28an.


Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal- idazkaria

